

Kanalak

Gure proiektuaren produktua ezagutzera eramateko hainbat kanal erabiltzea erabaki dugu:

- Kamisetak: herri bakoitzeko festetan kamiseta pertsonalizatuak egingo genituzke taldeko logoarekin eta baita herriko logo esanguratsuekin ere. Adibidez, ordizian udaletxeko logoa jarriko genuke eta ondoren gure izenaren irudi bat.
- Tabernak: tabernetan hainbat kartel jartzea otu zaigu, hala bertako jendeak gure produktuaren berri izango du. Bestalde hainbat tapa utziko dizkiegu bertako bezeroei erakusgai gisa, zer nolako erabilerak eta abantailak dituen ohartzarteko. Gainera, tabernetan gure produktua eskuratzeko aukera izango dute.
- Web-gunea: webgunean primiziak emango ditugu, adibidez, deskontuak edo oferta bereziak baldin badaude bertan jakinaraziko diegu bezeroei. Bestalde, herri desberdinetako festetan salgai egongo diren kamiseta, edalontzi eta tapen argazkiak zintzilikatuko ditugu norbaitek erosi nahi izanez gero tabernara joan behar ez izatearren.
- Marketina: aurrerago diru kantitate bat irabazi ondoren, inguruko aldizkari famatuetan, bai fisiko bai internet bidezkoetan, gure produktuari buruzko informazioa azalduko da.
- Markekin kolaborazioak: marka famatu ezberdinekin kolaboratuko dugu, hala gure produktuari aniztasun gehiago emateko aukera izango dugu eta modelo ezberdinak egiteko

aukera izango dugu ere. Honi esker, bezero gehiago erakarriko ditugulakoan gaude.